

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Eguneroko bizitzako hainbat egoera ekuazio-sistemen eta inekuazioen bidez modelizatu, grafikoki zein aljebraikoki, eta modelo horiek eraldatuz eta interpretatuz problema ebatzi eta soluzioa adierazi, hainbat adierazpenen molde baliatuz.</p>	<p>1.1. Ekuazio-sistema linealen koefizienteak eta adierazpen grafikokoak erlazionatu ditu eta, haiek aztertuz, sistemaren soluzio kopurua eta zuzenen kokapen erlatiboa ondorioztatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>1.2. Ekuazio-sistema linealak ebatzi ditu grafikoki zein aljebraikoki, kasuan kasu ebazpen-metodo onena aukeratuz eta emaitza egoki interpretatuz eta esanahi geometrikoa ezagutuz.</p> <p>1.3. Lehen mailako inekuazio sinpleak, eta ezezagun bakarreko inekuazio-sistemak ebatzi ditu.</p> <p>1.4. Ekuazio-sistemekin erlazionatutako problemak modelizatu eta ebatzi ditu, problemen ebazpenerako eredu aintzat hartuz.</p>
<p>2. Eguneroko bizitzako egoeretan erlazio zehatzak funtzio linealen bidez adierazi, ezaugarriak identifikatu eta adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin, grafikoki zein aljebraikoki.</p>	<p>2.1. Bi magnitudeen arteko erlazio funtzional linealak identifikatu ditu eta zuzenen bidez adieraz daitezkeen erlazioak bereizi eta sailkatu ditu, erabakia justifikatuz.</p> <p>2.2. Zuzenen adierazpen molde desberdinen artean (testuala, grafikoa, aljebraikoa eta taula bidezkoa) eraldaketak egin ditu eta ezaugarrien arabera deskribatu eta interpretatu ditu.</p> <p>2.3. Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako erlazio funtzionalak interpretatu eta eraldatu ditu eta haietatik informazio berria lortu du. Proporzionaltasunarekin lotutako eguneroko bizitzako problemak ebazten ditu.</p>
<p>3. Funtzio ez-linealen ezaugarriak deskribatu eta adierazpen moldeak eraldatu. Funtzio horiekin eragiketak egin eta eguneroko bizitzako egoeratan oinarritutako adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin, grafikoki zein aljebraikoki.</p>	<p>3.1. Funtzio koadratikoa eta funtzio esponentziala irudikatu ditu (eskuz nahiz Geogebra bidez) haien adierazpen aljebraikoak eta grafikokoak erlazionatuz.</p> <p>3.2. Funtzio koadratikoaren eta funtzio esponentzialaren ezaugarrietatik abiatuta, funtzioak deskribatu ditu (kurbaduraren forma, eremua, ibilbidea, hazkunde tarteak, erpinaren koordenatuak, simetria ardatza, ardatzekin ebakidura puntuak) eta haiei dagozkien adierazpen aljebraikoak idatzi ditu, ezaugarriei lotutako ekuazioak ebatziz.</p> <p>3.3. Funtzio ez-linealekin erlazionatutako eguneroko bizitzako problemak ebatzi ditu: problemaren eskakizuna eta baldintzak identifikatu ditu, ebazpenerako modeloa sortu du, ebazpenaren urratsak sekuentziatu ditu, sortutako modeloa eraldatu du soluziora iristeko eta emaitza komunikatu du.</p>
<p>4. Ekonomiarekin lotutako problemak ebatzi, funtzio esponentziala baliatuz.</p>	<p>4.1. Ekonomiarekin erlazionatutako problemak ebatzi ditu: interes simplea, konposatua eta nominala.</p> <p>4.2. Emaitzak egoera errealeran eraman ditu: emaitzari errealitatean duen zentzua eman dio, unitateak adierazi ditu eta emaitzaren zehaztasuna finkatu du, emaitza komunikatzeko terminologia eta sinbolo matematiko aproposak erabili ditu eta emaitzaren onargarritasuna justifikatu du.</p>